

# 12/19

## *irizpena*

4/2015 Legea, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, garatzeko

Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2019ko uztailaren 30ean



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## 12/19 IRIZPENA

4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzen duena,  
garatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2019ko uztailaren 30ean

### I.- AURREKARIAK

2019ko uztailaren 11n Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren idazkia sartu zen eta irizpena eskatu zuen 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzen duena, garatzeko dekretu-proiektuari buruz, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dekretu-proiektua Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egin du eta bere helburua 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzkoa, araubidez garatzea da, bereziki, lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko beharrezkoak diren tresnei eta lurzoruaren kalitatearen arloan administrazio-prozedurei dagokienean.

Uztailaren 11n lege-aurreproiektua Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzaizen, proposamenak eta iritziak igorri eta guztiak lan batzorde egokiari, hau da, Ekonomia Garapeneko Batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoari jarraiki. Ekonomia Garapeneko Batzordea lan-saioan uztailaren 24an bildu zen irizpen-aurreproiektuaren proposamena eztabaidatzeko eta irizpen-proiektua egitea erabaki zuen. Nolanahi ere, Euskadiko EGABren Osoko Bilkurak 2019ko uztailaren 30ean landu eta aho batez onartu zuen.

### II.- EDUKIA

Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko uztailaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen dekretu-proiektuaren testuak zioen azalpena, 23 artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, bi azken xedapen eta 10 eranskin ditu.

#### **Zioen azalpena**

Gero, zioen azalpenak lege berriaren edukitik gainbegirada azkarra burutuko du.

#### **Xedapen-gorputza**

Lege-aurreproiektuaren xedapen-gorputzak hurrengo xedapenak ditu:

### **I. KAPITULUA - XEDAPEN OSAGARRIAK**

1. artikulua.- Xedea
2. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen arloan aitortenaren prozedurak hastea
3. artikulua.- Lurzoruaren kalitateari buruzko aitortenaren prozedura hasteko aurkeztu behar den dokumentazioa
4. artikulua.- Erakundeen arteko lankidetzeta eta partaidetzeta publikoa
5. artikulua.- Interesdunentzat eta beste administrazio publiko batzuetarako entzunaldia
  
6. artikulua.- Lurzoruaren kalitatea aitortzen duen ebazpenaren edukia
7. artikulua.- Berreskuratze-plana baimentzen duen ebazpenaren edukia
8. artikulua.- Lurzoru kutsatuak edo asaldatuak berreskuratzean ziurtatzea
9. artikulua.- Lurzoru kutsatua edo asaldatua berreskuratzean ondoreak
10. artikulua.- Eraikuntza-arrazoiak direla-eta, induskatzea baimentzen duen ebazpenaren edukia
11. artikulua.- Lurzoruaren erabilera-gaitasunari buruzko aitortenaren prozedura hasteko aurkeztu behar den dokumentazioa
12. artikulua.- Lurzoruaren erabilera-gaitasuna aitortzeko ebazpena
13. artikulua.- 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzkoak, 25.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, lurzoruaren kalitatearen arloan aitorten-prozedurez salbuestea.
14. artikulua.- 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzkoak, 25.1.b) eta c) artikuluan xedatutakoaren arabera, lurzoruaren kalitatearen arloan aitorten-prozedurez salbuestea.
15. artikulua.- 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzkoak, 25.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, lurzoruaren kalitatearen arloan aitorten-prozedurez salbuestea.
16. artikulua.- 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzkoak, 25.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, lurzoruaren kalitatearen arloan aitorten-prozedurez salbuestea.
17. artikulua.- 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzkoak, 25.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, lurzoruaren kalitatearen arloan aitorten-prozedurez salbuestea.
18. artikulua.- Tasak ordaintzea eta salbuespen-ustezkoak ematea
19. artikulua.- Lurzoruaren egoerari buruzko txostenak
20. artikulua.- Oinarrizko txostenak
21. artikulua.- Lurzoru-kutsaduraren aztarnak antzematean jakinarazi beharra
22. artikulua.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioa
23. artikulua.- Lurzorua kutsa zezaketen jarduerak izan dituzten eraikinak eta instalazioak

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

*Lehenengoa. – Lurzorua kutsa zezakeen jarduera jasan duten kokagunetik induskatutako material naturalak balioztatzea.*

*Bigarrena. – Nahitaez erabili beharreko eskaera-ereduak eta inprimakiak*

### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

*Bakarra.- Lurzoruaren egoerari buruzko aurreiazko txostena aurkeztea.*

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

#### **AZKEN XEDAPENA**

Lehenengo azken xedapena.-4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzen duenak, I. eranskinean xedatutakoa aldatzea.

Bigarren azken xedapena.- Dekretua garatu eta bere eranskinak egokitzeko araudia gaitzea.

Hirugarren azken xedapena.- Indarrean sartzea.

I. ERANSKINA.- Lurzoruaren kalitatea ikertzea

- II. ERANSKINA.- Lurzoruaren gasa ikertzea
- III. ERANSKINA.- Arriskuen analisi kuantitatiboa (AAK)
- IV. ERANSKINA.- Indusketa selektiborako plana
- V. ERANSKINA.- Zuzentzeko aukerak aztertzea
- VI. ERANSKINA.- Berreskuratze plana
- VII. artikulua.- Lurzoruaren egoerari buruzko txostena
- VIII. ERANSKINA.- Lurzoruaren azken egoera ikertzea
- IX. ERANSKINA.- Lurzorua kutsa zezaketen jarduerak izan dituzten kokaguneetan industria-instalazioak ikertu, kudeatu eta eraistea.

### III.- GOGOETA OROKORRAK

Lurzorua gizakiaren bizi eta jarduerarako oinarritzko baliabidea da, urria eta ez-berriztagarria. Nolanahi ere, horren gainean erabilera desberdinek bizikidetzen edota lehian dihardute. Degradazioa motela da eta, sarritan, eraginak ez dira berehala antzematen. Horrez gain, moduan anitzak dira eta horietako bat lurzoruaren kutsadura da.

Euskadin lurzoruaren kutsadura oso arazo garrantzitsua izan da, bere ezaugarriak kontuan hartuta: lurraldearen biztanleria-dentsitate handia, industria-sektorearen garrantzia, horren gainean instalatutako azpiegituren maila altua eta, batez ere, herentzian industria-garaiko lurzoru kutsatuen bolumen handia hartzea, garai hartan lurzoruaren babesa ez baitzen ingurumen-kezka, ez ekonomia eragileena, ezta gizartearena ere.

Laurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera kutsadura berriak prebenitzeko neurriak hartzen hasi ziren. Gauza bera gertatu zen arazo nabarmenenei kutsadura kendu eta premiazkoenak ez zirenen tratamendua planifikatzeko. Horiek guztiak arazoa bideratzeko funtsezkoak suertatu dira.

Arloan legedi berezia egiteak ere prozesuan oinarritzko funtzioa izan du. 1998. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko lege orokorra eman zen eta Euskadiko ingurumen-politikak bultzatzeaz gain, dagoeneko lurzoru giza bizia garatzen den ingurumenean sartzen zuen, beraz, babestea edukitzailer eta jabeen oinarritzko eskakizuna zen. Ildo horri eutsiz, lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatu behar zuten eta defendatu nahiz berreskuratzeko prebentziozko neurriak hartu behar zituzten. 2005. urtean 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzkoa, onartu zen eta bi dekreturen bidez garatu zen: batetik, lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeari buruzkoa eta, bestetik, kutsa zezaketen jarduerak edota instalazioak jasaten edota jasan izan dituzten lurzoruaren inbentarioaren ingurukoa.

Arau hori 2015. urtean lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko lege berriak ordezkatu zuen. Nolanahi ere, arauketan aldaketak sartu zituen eta 2005eko legea

aplikatu ostean lortutako esperientzian oinarrituta, hobekuntza-alderdiei aurre egin zien. Hala, ustezko garrantzitsuenetan lurzorua babestea eta kutsadura zuzentzea sustatu zuen, lurzorua kutsa zezaketen jarduera eta instalazioen ondoriozko eragina kontuan hartuta. Horrez gain, euskal araudiari hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko estatuko arau berria erantsi zion, era berean, hondakin eta lurzoru kutsatuen arloan EBko zuzentarau berrienak barne antolamenduari iraultzen baitzizkion.

4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzoru kutsatuak prebenitu eta zuzentzeari buruzkoak, Euskadiko lurzorua babestea du helburu eta, xede horrez, jatorri antropikoa duten ekintzen ondorioz ezaugarri kimikoak aldatzea prebenitzen du, lurzoru kutsatu eta asaldatuei aplikagarria zaien araubide juridikoa zehaztearekin batera, ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko.

Legeak zaintzarik ezaren printzipiopean administrazioaren esku-hartzea murriztu eta sinplifikatzen du, Euskadiko lurzoru-kalitatearen ingurumen-estandar zorrotzak lermatu gabe.

Legearen alderdirik nabarmenei erreparatuz, zioen azalpenak berak azpimarratzen du, lehenik eta behin, lurzorua kutsa dezakeen jarduera eta instalazioaren kontzeptua zehaztasun gehiagoz definitzea. Ildo horri eutsiz, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak kutsadura-ahalmenaren arabera sailkatu dira. Modu horretan, ahalmenari jarraiki betekizun desberdinak aplika daitezke. Bigarrenez, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko orduan, administrazioaren esku-hartzea arintzeko, lurzoruaren kalitatearen eremuan bi prozedura desberdin sortu dira eta ustezko zehatzetan sinplifikatzeari ekin zaio. Batetik, lurzoruaren kalitatea aitortzeko prozedura, lurzoruaren proposatutako erabilerari egokitzen zaiola baliozkotzera bideratutakoa, eta, bestetik, erabilera-gaitasunaren aitortpenari buruzko prozedura, eskusiboki industria-erabilerarako lurzoruaren erabilera-gaitasuna baliozkotzeko dena.

Lege honek lurzoruaren kalitatearen arloan prozedurei eta lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko tresnen eduki eta irismenari dagokionez araubidezko garapena aurrez ikusten du. Zehatz-mehatz esanda, lurzoruaren kalitatearen arloan aitortpenaren prozeduraz, lurzoruaren egoerari buruzko txostenez, arakatzeko-ikerketara zehatzez eta lurzoruaren azken egoerari buruzkoekin ari da.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak positiboki balioztatzen du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren araudi-ekimena, aztergai dugun dekretu-proiektu honetan adierazten dena, legea osatzen baitu, 4/2015 Legeak berak alderdi zehatzak hobe arautzeko aurrez ikusi ostean. Halaber, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen xedapenak behar bezala aplika daitezke. Ildo horretatik, legearen alderdiak xehetasun handiagoz zehazten ditu eta legearen aurreikuspenen kasu zehatzari aplika dakiokete.

Beharrezko eta esperotako dekretu-proiektua da eta orokorrean hartuta, arauketa positibotzat jotzen dugu, alde batera utzi gabe bi gogoeta orokor eta interesgarri. Horiek ondoren aipatuko ditugu:

### **Arauren irismena eta eragina: ezinbestez justifikatu eta arrazoitzea**

X. eranskinak *Oinarrizko Txostena* egitea zehazten du. Lurzoruetan egin beharko da, jardueraren instalazioak substantzia arriskutsu aipagarriak erabili, ekoitzi edo igortzea badakar eta, ondorioz, lurzorua eta zorupeko urak kutsa baditzake. Helburua instalazioa ustiatzen hasi baino lehen, abiapuntuko egoera idatziz jasoa gelditzea da. Nolanahi ere, hori jarduerak behin betiko uzten direnean lurzoruen eta zorupeko uren egoera jarraitu eta alderatzeko da.

Eranskin honetan araututakoarekiko kezka bat dugu. Izan ere, sail egileari eskatu nahi diogu lurzoruen eta uren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko araudiaren jatorrian egonik, europar legediak berak aurrez ikusitako baldintzak baino askoz zorrotzagoak ezartzera daramaten eta horiek justifikatzen dituzten aukera-elementuak eta arrazoiak eskaintzea.

Arloan europar araudiak arautzeko erregimena garatu du. Horrek lurzorua nahiz zorupeko urak babestearen interesa eta kutsa lezaketan enpresen jarduera ekonomikoa garatzea batzen ditu, aldi berean, jarduera lehiakorra garatu eta lurzoru nahiz zorupeko uren zaintza-eskakizunak betetzeko. Araurik berriena 2010/75/UE Zuzentaraua, Europar Parlamentu eta Kontseiluarena, 2010eko azaroaren 24koa, industria-igorpenei buruzkoa, (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak) da. Horren arabera, ingurumen baimen integratua behar duten jardueren kasuan, lurzoru eta zorupeko uren inguruan, oinarrizko txostena eta aldizkako jarraipen nahiz kontrola behar da. Barneko antolamendu juridikoari hurrengo legeen bitartez irauli zaio: 5/2013 Legea, ekainaren 11koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea aldatzen duena; 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa; eta, azkenik, 1/2016 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuei buruzko legearen testu bategina onartzen duena. Horrek 12 f) artikuluan 5/2013 Legeak oinarrizko txostenaren inguruan aurrez ikusitako jasotzen du, 2010/75/EB Zuzentaraua irauli ondoren. 2014. urtean "Industria-igorpenei dagokionez, 2010/75/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 2. atalaren esparruan abiapuntuko egoeraren txostenari buruz Europar Batzordearen orientabideak" komunikazioak oinarrizko txostenaren edukirako orientabideak eskaintzen ditu eta egiteko 8 etapa definitzen dira.

Erantsitako azken oharrean zenbait adibide zehazten dira<sup>1</sup> eta dekretu-proiektuak jatorrizko erkidegoko araudian finkatutakoak baino zorrotzagoak diren eskakizunak dituela frogatzen dute.

Arestian aipatu den europar araudi-multzoa, oro har, lurzoru eta zorupeko uren babesaren behar bezala bermatzeko eman da eta ustezko konplexuenetan lurzoruaren kalitatea aitortzea eskatzen du. Horrez gain, lurzoruaren egoera balioztatzekeo tresna nahikoak eskaintzen ditu. Hala, gure ustez, dekretu-proiektuak ez ditu helburu hori betetzeko baldintza osagarriak zehaztu behar. Horregatik, berriz azpimarratu nahi dugu dekretu-proiektuak euskal enpresei Europar Batasunak adierazitako eskakizunak baino zorrotzagoak aplikatzeko arrazoiak ez dituela ematen. Beraz, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eskatu nahi diogu hautabide hori hautatzeko aukera-elementuak azal ditzan. Halaber, jakin nahiko genuke horiekin lurzoru eta zorupeko uren babesaren eta Euskadin kokatutako enpresen lehiakortasunaren artean oreka nola ebazten den.

### **Arauketa batzuen zehaztapen-maila urria**

Araubidezko garapen-araua den neurrian eta, ondorioz, arauak zehatzagoa izan behar duen heinean, legearen xedapenen kasu zehatzak nola aplikatu behar diren azaldu behar du, baina bere artikuluen artean zenbait xedapenek gure iritziz zehaztasun-maila handiagoa eskatzen dute. Gogoeta berezien atalean aipatuko ditugun xedapen zehatzez gain, adibide modura, kutsatutako lurzoru-bolumenaren eta kutsadura kentzeko erabili behar den teknikaren arabera, lurzoruetatik kutsadura kentzeko lanetarako epea zehaztu gabe dagoela aipa dezakegu.

Era berean, lurzoru kutsa dezaketan jarduerak edo instalazioak hartzen dituzten lurzoruen inbentarioa arautzeari dagokionez, gure iritziz kontuan hartu beharko liratekeen alderdien inguruan urritasunak antzeman ditugu, hala nola, helburuak, atxikipena, izan behar duen informazioa, etab.

## **IV.- GOGOETA BEREZIAK**

### **3. artikulua.- Lurzoruaren kalitateari buruzko aitortenaren prozedura hasteko aurkeztu behar den dokumentazioa.**

Gaur egun, lurzoru teknologia berriak aplikatuz azter daiteke eta erabilera hori aurrez ikusi behar da, lurzoruaren kalitateari buruzko aitortenaren prozeduraren barruan aurkeztu behar den dokumentazioa arautzeko orduan. Horregatik, gure ustez, artikulua honen 2. atalean hirugarren idatz-zatia erantsi beharko litzateke, arriskuen analisirako programa informatikoak erabiltzearen ustezkoa aurrez ikus



dezan. Txostenak kalkuluak egiteko programan sartutako parametroen zerrenda izatea eskatuko da. Gainera, txostenarekin batera, programak sortutako fitxategi informatikoen kopia entregatuko da.

## **6. artikulua.- Lurzoruaren kalitatea aitortzen duen ebazpenaren edukia**

5. atalean ezarritako neurriak betetzen direla bermatzeko, beharrezkotzat joz gero, xede horretarako zenbateko nahikoan abalak, fidantzak edo bestelako bermeak eskatu ahal izatea aurrez ikusten da. Gure iritziz formulazio hori zehaztu egin behar da, aplikazio arbitrarioak saihesteko, beraz, itxuraz, komenigarria da garapen-agindua eskatzea, bermea eratzea eskatzen duten ustezkoak eta baremoak zehazteari begira.

6.5. artikulua.- *Beharrezkotzat joz gero, Ezarritako neurriak betetzen direla bermatzeko, zenbateko nahikoan abalak, fidantzak edo bestelako bermeak osatzea eska daiteke. **Ustezkoak eta zehaztapena ondorengo garapen-aginduan zehaztuko dira** . Nolanahi ere, halako berme-mota ezar daiteke kokagunean pertsonen osasunerako eta ingurumenerako arrisku onartezinak egoteagatik edo zorupean ala lurzorian hondakin arriskutsuak daudelako berreskuratze-plana egikaritzea beharrezkoa denean. Bermeak ebazpenean aipatutako pertsonen jarriko zaizkie, nahiz eta jabeen edo edukizailleak ez izan, baita egikaritzeko orduan, izaerarengatik denboran luzatuko diren kontrol eta jarraipen neurrien kasuan ere.*

## **7. artikulua.- Berreskuratze-plana baimentzen duen ebazpenaren edukia**

1. Lehenengo atalean artikuluko honek berreskuratze plana baimentzen duen ebazpenak dituen gutxieneko alderdiak xedatzen ditu. Besteak beste, hirugarreneko c) hizkian alderdi bat *berreskuratzea eskatzen duten esposizio-bideak eta kutsatzaileak* direla dio. Gure iritziz, esposizio-bideak eta kutsatzaileak idatziz jasoak uztea garrantzitsua izateaz gain, kutsaduraren fokua aipatu beharko lirateke, beraz, arauan sartzea proposatzen dugu.

7.1.c) artikulua.- Berreskuratzea eragiten duten **kutsadura-fokuak**, esposizio-bideak eta kutsatzaileak **deskribatzea** eta, bidezkoa bada, kutsatzaile desberdinetarako lortu behar diren kontzentrazioak finkatzea.

2. 2. atalean aurrez ikusitakoaren arabera, ebazpenean ezarritako neurriak betetzen direla bermatzeko, beharrezkotzat joz gero, xede horretarako zenbateko nahikoan abalak, fidantzak edo bestelako bermeak eska daitezke. Aurreko xedapenean argudiatu eta proposatutakoari eutsiz, formulazioak ez du zehaztapenik eta aplikazio arbitrarioak saihesteko, komenigarria da garapen-agindua eskatzea. Horrek bermea osatzeko ustezkoak eta baremoa zehaztuko ditu.



7.2. artikulua.- ~~Beharrezkotzat jotzen gero, Berreskuratze-plana baimentzen duen ebazpenean ezarritako neurriak betetzen direla bermatzeko, zenbateko nahikoan abalak, fidantzak edo bestelako bermeak osatzea eska daiteke.~~ **Ustezkoak eta zehaztapena ondorengo qarapen-aginduan zehaztuko dira** .

*Ingurumen Kudeaketa eta Auditoriaren Erkidegoko Sistemaren Erregistroan (EMAS) inskribatuak dauden erakundeak artikuluko honek aipatzen dituen bermeak osatuz salbuetsiak egongo dira”.*

### **9. artikulua.- Lurzoru kutsatua edo asaldatua berreskuratzean ondoreak.**

Beharrezkotzat jotzen dugu berreskuratu ondoren, kutsatu edo asaldatu modura lurzorua aitortzenari buruz jabetzaren erregistroan orri bazterreko oharra deuseztatzeko eskaera ingurumen-organok ofizioz egiteaz gain, aldeak ere egin ahal izatea. Itxuraz, dekretu-proiektuak lehenengo aukera besterik ez du aurrez ikusten.

9.3. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organok, **ofizioz edo interesdunak eskatuta**, jabetzaren erregistroan bazterreko oharra ezaba dadin eskatzeari ekingo dio, kutsatua edo asaldatua aitortu den lurzoria berreskuratu dela egiaztatutakoan.

### **14. artikulua. 4/2015 Legeak 25.1. b) eta c) artikuluan xedatutakoaren arabera, lurzorua kalitatearen arloan aitortzen-prozedurez salbuestea.**

2. atalean xedatutakoari dagokionez, Batzorde honen ustez bidezkoa da indusketa plana beharrezkoa den kasuetan egikaritzeko ingurumen-organoren ebazpenik behar al den argitzea.

### **23. artikulua. Lurzoria kutsa zezaketen jarduerak izan dituzten eraikinak eta instalazioak**

23. artikulua duen edukia eta Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntza- eta eraispentxandak (EEHak) ekotzi eta kudeatzeari buruzko 112/2012 Dekretuak arautzen duena bat al datozen zalantzak ditugu. Gure iritziz, artikuluko honetan xedatutakoak halaber koordinatua eta bat egina egon beharko du 112/2012 Dekretuak xedatutakoarekin. Ildo horri eutsiz, 23. artikuluan honako alderdiak zehaztu edo argitzea proposatzen dugu:

- "Saneamenduari buruzko azterketa osagarriari" buruz, jarduera uzten duen titularrak egin behar al duen definitzea.

- Instalazio eta eraikinen saneamendu azterketaren edukia dekretuaren IX. eranskinak arautzen du, baina EEHen 112. Dekretuko "Azterketa osagarriaren" edukiarekin nola lotu daitekeen gehiago argitzea iradoki dugu.

- Era berean, hondakinak industria-eraikinak eraistetik badatoz, agregakin birziklatuak fabrikatzeko EEHen erabilera-aukeraren ziurtagiria buru dezaten, ECAREN (erakunde ziurtatua) irizpide operatiboak eta teknikoak argitu behar direlakoan gaude, eraikin horiek lurzoria kutsa zezaketen jarduerak izan badituzte.

### Xedapen iragankorra. Lurzoruaren egoerari buruzko aurretzeko txostena aurkeztea.

Dekretu berria indarrean sartzen denetik, epea hirutik sei hilabetera luzatzea proposatzen dugu, lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioen titularrak jardunean badaude, egoerari buruzko txostena aurkez dezaten, oraindik egin gabe izanez gero. Osatzeko eskakizun mailak, itxuraz, hori gomendatzen du.

*Xedapen gehigarria.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioen titularrak jardunean badaude eta egoerari buruzko txostenik aurkeztu ez badute, ~~hiru hilabete~~-sei hilabete- izango dituzte aurkezteko, dekretua indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita".*

### Lehenengo azken xedapena. 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzorua kutsadura prebenitu eta zuzentzen duenak, I. eranskinean xedatutakoa aldatzea.

#### I. eranskina. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak

Eranskin honetako zerrenda aztertu ostean, lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioen zerrendan zorupeko tangatan autokontsumorako "*edozein erregai kantitate biltegitzeko*" jarduerak eta instalazioak sartzeari arrazoizkoa al den planteatzen dugu. Zerrendaren amaieran 2. oharreko bigarren epigrafeak (erabiltzen ari garen 34. orrialdea), hain zuzen, ustezko hori arautzen du. Idazpen hori berriz pentsatzea edo, behintzat, irismena mugatzea bidezkotzat jotzen dugu. Egungo idazkerarekin zorrozkari industria-jarduerak gaituzten instalazioak eta jarduerak hartuko litzukeelakoan gaude. Adibidez: Arauketa honen arabera izan daiteke, esaterako, bulego-erakina edo bizilagunen erkidegoa, erregaiak badu?

#### I. ERANSKINA.- Lurzoruaren kalitatea ikertzea II. ERANSKINA. Lurzoruaren gasa ikertzea

Gure ustez, dekretu-proiektuak **ikerketa arakatzaileren fasea** zehatzegi eta xeheegi arautzen du eta zenbait eskakizun ikerketa xehatuaren fasean sartu beharko lirateke. Gogora dezagun ikerketa arakatzailera aurretzeko balorazio-fasea dela. Izan ere, ikerketa xehatuaren faseari ekin baino lehen egin behar da. Fase arakatzaileran ikerketa zehatzagoa aktibatzen (zehazki, ikerketa xehatua) kutsaduraren azterketa eta arrazoi nahikoak egon daitezkeen balioztatzen da.

Ondoren, dekretu-proiektuaren I. eta II. eranskinetako epigrafeak jasoko ditugu, gure ustez balorazio arakatzailera ikerketa xehatuak berezkoak dituen zehaztapenak aurretik ikusten dituelakoan:

- **I. eranskinean: Lurzoruaren kalitatea ikertzea**
  - **Azterketa historikoa gauzatzeko informazio-iturriak.** Itxuraz, dekretuak berak lanen hedadura horri eta inguruko lur-zatiak aztertzeari zehaztapen handiagoa eman behar zaiola adierazten du. Ustezko garrantzitsuak gehiago zehaztu behar dira.
  - **Kokagunearen irudi historikoak biltzea.** Dekretu-proiektuak, *azterketa historikoak gauzatzeko informazio-iturriak* epigrafepean (erabiltzen ari garen testuko 40. orrialdea),

xedatutakoarekin bat, ezinbestekoa da "gutxienez, denbora desberdinetan bi aireko argazki-iturri kontsultatzea eta horiek denbora luzeak hartzea..." Neurria proportzioz kanpokoan izan daiteke, dagoeneko kontsultatzen diren aurretiazko iturriak kontuan hartuta: lurzoruen inbentarioa, lurzoruaren kalitateari buruzko erregistroa, aldizkako txostenak, erkidego, foru eta udaletako agiritegiak... Are gehiago, une zehatzetan (adibidez, duela 100 urte) ia ez zen fabrika eta inguruneen argazkirik ateratzen. Honakoaren inguruan hausnarketa egin beharko litzateke: denbora desberdinetan irudien informazioa lortzeko zailtasun edo ezintasunari erreparatuz, lurzoruaren ikerketarekin aurrera ez egitea arrazoizkoa al da? Nolanahi ere, dekretu-proiektuak baldintza hori nahitaezkoztat jotzen du.

- **Ingurune fisikoaren azterketari dagokion edukia.** Azterketaren edukia gehiegizkoa izan daiteke, fase arakatzailerako lurzoruaren azterketari buruzko helburuak kontuan hartuta. "Hidrogeokimika", "edafologia eta geografia" eta "tokiko klimatologiarekin" zerikusia duten informazio-alderdiak berriz pentsatzea proposatzen da.
- **Zorupeko uren laginetan kutsatzaileen kontzentrazioak balioztatzea.** "Nahikoa onartuak dauden beste erreferentzia batzuk" aipamena berriz pentsatzea proposatzen dugu, zorupeko uren laginen erreferentziazko balioei dagokienez, dekretu-proiektuaren testuak ez baitu behar bezala argitzen organo eskudunak zer "erreferentzia" aipatu nahi duen. Aukera bat litzateke dekretu-proiektuak erreferentziak zerrendatzea, organo eskudunaren iritziz "nahikoa onartuak eta gomendatuak" badaude.
- **II. ERANSKINEAN. Lurzoruaren gasa ikertzea.**
  - **Ikerketa arakatzailan gasaren laginketa.** Ikerketa arakatzailan gas laginketa derrigorrez egitea berriz pentsatzea proposatzen da. Bakarrik ikerketa xehatua eta dekretuan xedatutako baldintzak betetzen direnean eskatu beharko litzateke. Proposamenak honako oinarria du: balitekeela gasaren laginketa garrantzitsua ez izatea, ikerketa arakatzailan lurzuruan edo urean erreferentziazko balioak gainditzen dituzten substantzien kontzentrazioak ez daudelako.

### **III. ERANSKINA. Arriskuen analisi kuantitatiboa (AAK)**

Zehaztutako AAK mailan espezio-kontzentrazioari dagokionez, ahal den neurrian, kalkulatzeko laginen edo ratioen kopurua zehaztea eskatu behar dugu.

## V.- ONDORIOAK

Euskadiko EGABren iritziz egokia da Euskadiko mugikortasun jasangarriari buruzko legearen aurreproiektua izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2019ko uztailaren 30ean



O.E. Batzordeburua  
Emilia M. Málaga Pérez



Idazkari nagusia  
Lorea Soldevilla Palazuelos

<sup>i</sup> Ondoren, hainbat adibide azaltzen dira eta dekretu-proiektuak *oinarrizko txostenarekiko* eskakizunak jatorrizko erkidegoko araudian finkatutakoak baino zorrotzagoak diren eskakizunak direla frogatzen dute:

- Batzordearen orientabideekin bat etorritik, lehenengo bi etapatan, erabilitako substantzia arriskutsuak aztertuko dira, instalazioak sortu edo igortzen baditu; bien bitartean, 4/2015 Legea garatzen duen dekretu-proiektuak, horrez gain, aurreko instalazioak aztertzea eskatzen du.
- Europar Batzordearen orientabideen arabera, txostenaren 3. etapan, 2. etapan identifikatu ostean, substantzia arriskutsu aipagarrien ondorioz lurzorua eta zorupeko urak kutsatuak egotearen egiazko aukera zehaztu behar da. Horretarako, hurrengoak kontuan hartu behar dira: substantzia arriskutsuen kantitatea, lurzoruaren eta zorupeko uren ezaugarriak kokagunean eta, alde aurretik ezarriak dauden instalazioen kasuan, lurzoruaren eta zorupeko uren kutsadura praktikan ez gertatzea bermatzeko hartutako neurriak. Batzordearen komunikazioak azaldutakoari jarraiki, instalazioak sortu edo igortzen dituen substantzia arriskutsuen kantitatearengatik edo kokagunean lurzoru eta zorupeko uren ezaugarriengatik bitarteko horiek kutsatzeko aukera esangarriak ez badago, abiapuntu egoeraren txostenik ez da egingo. Halaber, txostena ez da beharrezkoa izango, alde aurretik ezarriak dauden instalazioen kasuan, praktikan kutsadura sortzea ezinezkoa egiten duten neurriak hartu badira. Dekretu-proiektuak, ordea, 6. etapan ez du kontuan hartu lurzorua kutsatzea ezinezkoa egiten duten prebentziozko neurriak hartzea, Europar Batzordearen agirian erreparatzen zaien bezala. Beraz, lurzoruaren laginketa egin behar da, lurzoruaren eta zorupeko uren ezaugarrien nahiz lurzorua babesteko neurrien gorabehera.
- Batzordearen orientabideetan, abiapuntu egoerari buruzko txostenaren gutxieneko baldintzek honakoak eskatzen dituzte: oraingo egoeraren inguruko informazioa eta, eskura balego, kokagunearen aurreko erabilerei buruzkoa, hau da, bakarrik aurreko erabileren inguruko informazioa eta ez lurzoru eta zorupeko uren laginketa. Hori dekretu-proiektuak eskatutakoarekin kontrajar daiteke, bai oinarritzko txostenaren helburuei dagokienez, bai 8. etaparako xedatzen direnei buruz. Ildo horri jarraiki, oinarritzko txostenaren helburu bat da lurzoruaren eta zorupeko uren egungo egoera balioztatzea, ingurumen-baimen integratua behar duen instalazioak eta lehen lurzorua kutsa zezaketen kokagune bereko beste jarduera batzuek garatutako jarduerarekin bat. Gainera, 6. eta 8. etapen arabera, esleitutako kantitate-atalasearen azpitik sortutako edo biltegiaritutako substantzia arriskutsuen kasuan izan ezik, lurzorua eta zorupeko urak modu "arakatzailean" eta, bidezkoa bada, "zehatzean" ikertu behar dira, lurzoruaren aitopeneri buruzko eskaeraren kasuan bezala.

- 1/2016 Errege Dekretuak 3. artikuluko 9. puntuan oinarritzko txostena hurrengo moduan definitzen du: *"Oinarritzko txostena: Abiapuntuko egoeraren txostena da eta substantzia arriskutsu nabarmenen ondorioz lurzoru nahiz zorupeko uren kutsaduraren egoerari buruzko informazioa du". Substantzia arriskutsu nabarmenak, instalazioak sortu edo igortzen baditu, erabilitako substantzia arriskutsuak dira, lurzorua eta zorupeko urak kutsatzeko aukerarekin zerikusia izanez gero. 12.1.f artikulua xedatutakoaren babesean, oinarritzko txostenak "(...) lurzoru eta zorupeko uren egoera zehazteko informazioa izango du, jarduerak behin betiko utzi ondoren, egoerarekin alderaketa kuantitatiboa egiteko". Dekretu-proiektuak X. eranskinean xedatutakoari erreparatzen badiogu, berriz, "Oinarritzko Txostenari" dagokionez, hala dio: "Bere xedea datu kuantitatiboak lortzea da eta, horretarako, kokagunean lurzoruaren eta zorupeko uren kalitatea ikertu beharko da hurrengo helburuarekin: a) Egungo lurzoruaren eta zorupeko uren egoera balioztatzea, ingurumen baimen integratua behar duen instalazioak garatutako jardueraren edo lurzorua kutsa bazezaketen aurretik kokagunean zeuden beste jarduera batzuen ondorioz giza osasun edo ingurumenerako onartezinak diren arriskuak baztertzeko. Horrekin 1/2016 Legegintzako Errege Proiektuak aipatutakoarekiko helburu osagarria sartzen da eta eragin garrantzitsuak izan ditzake, adibidez, jardunean dauden instalazioen kasu askotan ikerketa arakatzaila egin behar izatea.*